

Herri Aldizkaria

otomotz

2006ko urria 120. alea



**Trenbidea eta treneko langileak
150 urte gure artean**

KOLABORAZIOA: IBON GARMENDIA

ELKARRIZKETA: ALEJANDRO EGEA - ELIAS JAUREGI

IZERDI PATSETAN: FRANCISCO NUÑEZ, UROLAKO PRESIDENTE BERRIA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎: 943 72 41 00
e-mail: irnasa@euskalnet.net
ZUMARRAGA

ARGAZKI ZAHARRA



Aita Pasiotarren eskutik sortutako dantza taldeari 1946an ateratako argazkia.
Zutik, goiko ilaran: P. Aranguren, ..., J.M. Agirrebeña, R. Esnaola, Mardones, Cipri eta Pozueta.
Zutik, erdiko ilaran: Enrique, Alvarez, Arrieta, S. Urteaga, T. Sadaba, L. Perez, J. Andueza eta L. Arrieta.
Makurtuta: Arrieta, Urmeneta, Severiano, San Miguel, Ruiz, M. Urteaga eta Urmeneta.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KLIK ETA KLIK



2006ko urria

KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak Carlos Mediavillak atera ditu.

Trenbidea eta treneko la

Urretxu eta Zumarraga bidegurutzea direla entzuten dugu askotan, baina hori ez da beti hala izan. Garai batean mendian galdutako bi herrixka ziren. Gipuzkoa erdian zeuden, ordea. Hori dela eta, XIX. mendean trenbidea heldu zen eta horrek bi herri hauek erabat aldatu zituen. Norteko trenbideak bultzada bikaina eman zion ekonomiari eta lehenengo enpresak sortu ziren. Gero, Baskongadoetakoa eta Urolakoa egin ziren.

Norteko trenbidea garaiko Madrilgo gobernuaren egitasmo estrategiko garrantzitsua izan zen. "XIX. mendean Espainia nahiko atzeratuta zegoen eta gobernu batzuk Espainiako ekonomia Europakoarekin lotzen saiatu ziren. Horretarako, elementu interesgarrietako bat trenbidea zen. Madril eta Frantzia lotu nahi zituzten eta hori Kataluniatik eta Irundik egin zuten".

Estatu espainiarreko gobernuak ez ezik, tokian tokiko Diputazioek ere interes handia zuten. "Gipuzkoako Aldundiak sekulako interesa azaldu zuen. Madrilgo gobernuak eta Diputazioek jarri zuten dirua. Eskaera publikoak egin zituzten. Jende askok eman zuen dirua, baita apai-zek ere. Zumarragan ere, adibidez, jende askok jarri zuen dirua. Gipuzkoan oso azkar lortu zen behar zen kopurua".

Beste kontu bat, trenbidea nondik pasa zen. Gasteizetik Altsasura joan behar zuen eta bertatik Donostiara. Errazena eta merkeena Altsasutik Beasainera zuzenean joatea zen, baina ez zen hala egin. "Gipuzkoan barrena sartzeko interes handia zegoen, Deba bailarako enpresak ere trenaz baliatu zitezten. Aldundiak oso argi zuen hori. Hala, Zegama, Legazpi eta Urretxu-Zumarragatik pasatzea erabaki zen. Trenbidea luzeagoa izango zenez, bigarrenago diru eskaera egin zen. Dirua berehala lortu zen eta Altsasutik Ordiziarako zatia oso azkar egin zen".

Desjabetzek hainbat istilu sortu zituzten, noski. Urretxu eta Zumarragan erreka desbideratu egin behar izan zen eta horrek ere berea ekarri zuen. "Ordura arte, ibaia beti izan zen muga. Kontua, mugituz gero, muga non ezarri zen. Hala, ibaia

Esteban Orbegozo bera trenbidea zela eta, etorri zen Zarautzetik Zumarragara. Egun, trenbide bakarra dago, baina, berari esker, bi herri hauek bidegurutze izaten jarraitzen dute. Antonio Prada Zumarragako artxibozainarekin, Jose Antonio Soria eta Javier Sanchez treneko langileekin eta azken 29 urteotan Donostiara lanera trenean joan den Txaro Uharterekin hitz egiten izan gara Zumarragako geltokiari buruz.

mugitu aurreko muga mantentzea erabaki zen. Dena den, azkenean, errekek agindu zuen... Toki batzuetan Zumarraga atera zen irabazten eta beste batzuetan Urretxu. Dena den, ordutik, zumarragarrak lapurrak gara urretxuar batzuen ustez. Izan ere, Zumarragak herri erdian, Zelaikoa meandroan, lur pila irabazi zuen. Secundino Esnaola kalearen zati handi bat Urretxun zegoen duela 200 urte".

Pradak dioenez, Zelaikoan bizi zen familia izan zen euren etxea eta lursaila Zumarragara pasatzea eskatu zuena. "Nahiz eta lehenengo muga errespetatzea erabaki zen, Zumarragako erdigunea Urretxukoa baino askoz ere gertuago zutenez, oraindik Labeaga kalea egin gabe zegoen, Zelaikoa etxean bizi zirenek Zumarragara pasatzea erabaki zuten. Udalak euren esku utzi zuen hori lortzea eta Diputazioak baiezkoa eman zuen. Urretxu aurka azaldu zen eta kontua epaitzietara iritsi zen. 20 urte ondoren, gaia Madrilgo gorteetan aztertu zuten eta haiei logikoena lursail hura Zumarragara pasatzea iruditu zitzaion".

Istiluak istilu, 1864ko abuztuaren 15ean Norteko trenak lehen bidaia egin zuen. "Obra, Sociedad General de Crédito Inmobiliario delakoak egin zuen. RENFE 1941ean sortu zen eta, ordura arte, gobernu arduratu zen trenbideaz". Izan ere, garraibide honek garrantzia handia du herrialde guztietan. "Garai hartan, trenbide gabe, herrialde batek ez zuen garatzerik. Bagoiak elkarriz lotuz, ordura arte baino askoz ere merkantzia gehiago eraman zitezkeen bidaia bakoitzean".

Urretxu-Zumarragak ere, trenbi-

dearen eraginez dute egungo izaera. "Industri iraultza ekarri zuen. Trenbidea egin aurretik Gipuzkoa barrualdeko bi herrixka ziren: ez zegoen merkataritzarik, ezta industriarik ere, abeltzaintza eta nekazaritza bakarrik. Eitzako errepidea zegoen, XVIII. mendean egina, baina ez zion garapenik ekarri herriari".

Enpresak trenbidea egin ondoren ireki ziren. "Hamar urte baino gutxiagora Artiz sortu zen. Non? Trenbidearen ondoren. Hurrengo Rojo y Zaldúa izan zen. Non? Trenbidearen ondoren".

Orbegozo ere, trenbideari esker etorri zen Zarautzetik Zumarragara. "Euren produktuak esportatu nahi zituzten eta Udalari lur zati bat eskatu zioten, enpresa ekartzearen truke. Trenbideak Urretxu-Zumarragari aurreko izaera kendu eta berria eman dio: etorkinena. Herria lehen baino aberatsagoa edo hobea den? Ez dakit, ezberdina bai, ordea. Trenbiderik gabe, mendian galdutako bi herri izaten jarraituko zuten. Amezketak modukoak".

Geltokia zuten herri guztiak aldatu ziren. "Lehen, Beasain Ordizia baino txikiagoa zen, Irun Hondarribia baino txikiagoa, Andoain ez zen egun bezain handia... Ez diot herri hauek hobera egin dutenik, trenbidearen eraginez aldatu egin direla baizik".

Handik gutxira, Aldundiak Zumarraga eta Bilbo Durangotik lotu beharra zeudela ikusi zuen. "Norteko trenbidea egin eta 15-20 urtera bi geltoki zeuden jada. Bigarren trenbidea ere jendeak ordaindu zuen. Urolako trena, berriz, XX. mendeko 20ko hamarkadan egin zen eta Aldundiak ordaindu zuen oso-osorik".

Ingileak: 150 urte gurean



Jose Antonio Soria, ezkerrekoa, Juan Carlos Alcalde eta Andres Calvo lankideekin.

Jose Antonio Soria: “Zumarragan egun 15 lagun gara eta garai batean 30 bat ginen”

Gizon askok lan egin dute Zumarragako geltokian eta Norteko trenbidean XIX. mende erdialdetik: trenbidea egiten dela, mantenu lanetan, makinistak, txartelak saltzen... Egun, 15 bat lagun aritzen dira inguru honetan. Beteranoena, Jose Antonio Soria dugu. 1971n etorri zen Andaluziatik, baina oraindik ez du azentoa galdu. Makina bat istorio ditu kontatzeko.

Zenbat denbora daramazu trenbidean lanean?

38, horietatik 35 Zumarragan. 18 urterekin, soldadutzan nengoela, sartu nintzen RENFEn. Handik hiru urtera lizentziatu eta destinoa eman zidaten. Madrilen lanean nengoela Zumarragako bat ezagutu nuen eta hona etortzeko esan zidan. Futbola gustukoa nuen eta hemen Urola sortu berri zela eta jendea behar zutela esan zidan. Lehen partida Beran jokatu nuen: Aldamarekin, Orbegozoren semearekin... Ez nuen inor ezagutzen eta beldurtuta joan nintzen. Itzuleran, afaria

egin genuen eta hor galdu nuen lotsa. Hiruzpalau urte eman nituen Urolan eta beste horrenbeste Ilintxan. Izan ere, Legazpira ezkondu nintzen.

Beti sail berean lan egin al duzu?

Bai, elektrizitate kontuan, katenariaren mantenuan. Kontratua sinatzeko orduan urduri jarri nintzen eta katenarian lan egitea hautatu nuen. Andaluzian ez zegoen hemen bezainbesteko katenariarik, baina azkar ikasi nuen... Malagara itzultzeko aukera izan dut, baina hemen ezkondu nintzenez...

HILABETE HONETAKO GAIA

Zer aurkitu zenuen etorri zinenean?

Euria ari zuen eta jendea aterkia kolkotik ikusteak, seko harritu ninduen. Beso motzetan etorri nintzen ni... Beldurtuta etorri nintzen, hemen jendeak arrautzak txorizoarekin gosaltzen zituela eta... Kiloko txuleta jatera ere ohitu nintzen! Navarro jatetxean bisigua jaten genuen hutsaren truke! Jauregi kaleko pentsio batean egon nintzen hasieran. Gero Bravo ondoko batean. 12 ordu lan egiten genuen eta janaria lanera ekartzen genuen: goizeko 8etan sartzen ginen eta iluntzeko 8etan atera. Urretxuko pentsioko nagusiak gizenak eskatzen zituen harategian eta hura jartzen zigun bazkaltzeko. Txakurrek ere ez zuten hura jaten! Tomate frijitua botatzen genion... Tunel barnean jandakoak gara. Tuneletan zuloak eginda daude bazkaltzeko. Beti egunez lan egiten genuen, zirkulazio txikia baitzegoen. Egun, berriz, mantenu lan guztia gauez egiten da. Pentsa, hemen neguan lan egitea zer den... Brinkolako tunelean sekulako izotz puska kentzen genituen, matxura ugari izaten zen.

Izugarri hobetuko zen guztia...

Orain, dena askoz ere modernoagoa da. Lehen, treneko atea eskuz itxi behar ziren. Orain, Mirandatik zuzentzen da guztia: trenbidea moztu nahi badugu, bertara deitu eta kitto. Lehen, banderina, txilibitua, orratzak eskuz aldatu beharra, buzo urdina, istripu gehiago... Lan kontuan, ordea, okerrago gaude: geroz eta langile gutxiago daude, dena azpikontraten esku utzi da... Dena den, asteburuetan RENFEkook soilik lan egiten dugu: telefonoa uneoro gainean eraman beharra dut. Perretxiko bila joatea gustatzen zait eta beti telefonoak joko ote duen beldurrez izaten

naiz. Orain matxura gutxiago daude, baina lehen telebistan telefonoa entzute hutsak urduri jartzen ninduen.

Segurtasuna ere handiagoa izango da.

Ia ezinezkoa da istripua egotea eta, baldin badago, egiten duenak ordaintzen du. Izan ere, oso kontrolatuak gaude. Makinistak bakarrik joaten dira, baina minutuoro pedala zapaldu behar dute, bestela trena gelditu egiten da.

Zertaz arduratzen zara zehazki?

Otzaurtetik Ormaiztegirainoko kableez. Ohikoena, katenaria haustea, zuhaitz bat erortzea, tren bat bidetik irte... da. Bolada kontua izaten da. Brinkolako tunelean lehergailuak jarri zituztenean, joan beharra izan nuen. Sartzer a gindoazenean, beste lehergailu bat lehertu zen. Handik hiru egunetara korrontea ematera joan ginen, beldurrak jota. Tolosan azidoa zeraman tren bat bidetik irten zenekoa ere oroitzen dut. Bapore makinak ere ezagutu nituen. Hauetako bat pasa ondoren Brinkolako tunela oinez zeharkatu nuen eta aurpegia beltz-beltz eginda irten nintzen.

Ez da lan samurra izango zuena...

Gu beti azkenak gara. Besteek trenbidea garbitu ondoren hasten da gure lana. Gure trenbide zatian 20 tunel daude eta horrek lana zailtzen du. Brinkolakoak 2.995 metro ditu. Zumarragakoak, berriz, estua da. Trena pasatzen denean, ozta-ozta kabitzen gara bazterrean.

Garai batean are eta gogorragoa izango zen, oraindik...

Beno... posteak purpurinarekin

margotzen ematen genuen egun guztia. Orain denak galbanizatuak dira. Euskaldun gutxi lan egiten zuten hemen. Nik bi eza-gutu ditut: Azurmendi, Urretxuko arrain-saltzaileen anaia, eta Goldeneko Ormazabal. Euskal Herrian lan asko zegoen eta jendeak ez zuen estatuarentzat lan egin nahi. Orain jende gutxi sartzen da. Geroz eta lan gutxiago dago. Ordizian tornuak jarri behar dituzte eta ez da interbentorerik behar izango. Zumarragan 15 lagun gaude egun eta garai batean 30 bat ginen. Leihatilakoek dute lan gehien eta eurak dira gutxien kobratzen dutenak.


Trenak gero eta hobeak izango dira.

Altaria famatua jarri dute eta alde ederra... Orain, Malagatik 9.30ean irteten naiz, Madrilera 13.00etan heltzen naiz, 14.00etan Altaria hartzen dut eta 18.45ean Zumarragako geltokian naiz. Lehen 14 ordu behar nituen! Bartzelonara joateko, berriz, oso gaizki dago. Gaueko espresoak, sei bat lagunekin gela berean sartu beharra... Gainera, treneko eserlekurik okerrak RENFEko langileei ematen dizkigutela esango nuke. Beherapena dugulako izango da... Aldirikoetan, berriz, bidaia doan-koa dugu.

Trenbideari kariñoa hartzen al zaio?

Legazpiko lankide batek, oporretan zela, trenbidean zuloa ikusi eta emaztea eraman zuen berarekin hura kentzera. Oraindik bizi da eta eguna trenbide ondoan ematen du. Zer edo zer gaizki doala ikusten badu, deitu egiten digu. Hori bai RENFE maitatzea! Egia esan, nik ere trenbidea maite dut. Bovadilla, nire jaioterria, Miranda antzeko herria da: trenbideak garrantzia handia du bertan.

Jose Antonio Soria eta bere lankideak konponketa lanean.



Elurra eta izotza, trenbidearen etsai amorratuak.



HILABETE HONETAKO GAIA

Javier Sanchez:

**“Diskoteketara joan beharrean
geltokietara joaten nintzen”**



Javier Sanchez bere tren bilduma ondoan duela.

Trenen munduak zaletu asko ditu. Huetako bat Javier Sanchez dugu. Donostiar honek txikitatik ditu gustuko. Hala 10 urterekin, gurasoek ematen zioten dirua trenean bidaiatzeko erabiltzen zuen. Oso argi zuen RENFErentzat lan egin nahi zuela eta 2000. urtea geroztik Zumarragako geltokian lan egiten du. Bertan miniaturazko tren bilduma aparta du.

Nolatan tren munduarekiko halako zaletasuna?

Ategorrietan jaio nintzen. Geltoki aurrean bizi nintzen eta eskolara joateko pasonibela pasatu beharra nuen. Trenbide giroa zegoen. Mundu horrek bereganatu egin ninduen. Familian ez dut trenbidean lan egin duen inor.

Nola garatu zenuen zure zaletasuna?

Geltokitik geltokira joaten nintzen: gurasoek emandako lehen sosekin Irunera joaten nintzen. 50-60 pezeta ematen zizki-

daten eta txartelak bost duro balio zuen. Joan-etorriko txartela eta pipa paketea erosteko besterik ez nuen.

Zer egiten zenuen, bakarrik, trenean?

Lehen makinisten ondoan joateko eta beraiekin hitz egiteko aukera zegoen. Beraien laguna egin nintzen. Bestalde, tren zaharrak ikustea, trafikoa, maniobrak, giroa... atsegin nituen. Etxean txundituta zeuden, baina gustura ikusten nindutenez, ez zitzaien gaizki iruditzen: diskoteketara joan beharrean, geltokietara joaten nintzen.

HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 60


PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

colors
arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57


UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

HILABETE HONETAKO GAIA

1927ko argazki honetan Zumarragan izan ziren hiru geltokiak ikus daitezke.



Urte hauetan guztietan denetik ikusi dute Soriak, Sanchezek eta gainontzeko lankideak.



Zumarragako geltokia ere bisitatu al zenuen?

Bai. Igande batean etorri nintzela oroitzen dut, duela 30 bat urte. Urolako trennean ibiltzeko aprobetxatu nuen.

Adinean aurrera egin ahala, bidaia luzeagoak egingo zenituen.

Mirandara, Iruñara... joaten nintzen egun pasa. Langileekin hitz egiten nuen eta beraien giroan murgiltzen nintzen. Garai hartan trenbideko lana gogorra zen eta zoratuta nengoela esaten zidaten. Lagunek RENFEkoa deitzen zidaten.

Bereziki atsegin duzun geltokirik?

Zamorakoa, esaterako, harribitxia da. Dena den, mugimendua duten guztiak atsegin ditut. Benetako giroa trenbide asko dituzten geltokietan izaten da.

Oso argi izango zenuen zertan lan egin nahi zenuen...

Toki askotan lan egin behar izan nuen RENFE-n sartu aurretik: taberna batean, farmazia batean... Oso argi nuen trenbidean lan egin nahi nuela eta deialdira aurkeztu nintzen. Ez nago gustuko dudan sailean, baina dagoeneko eroso nago eta ez dut aldatzeko asmorik. Aukeran, makinista izatea gustatuko litzaidake.

Zenbat denbora daramazu lanean?

RENFE-n 26 urterekin sartu nintzen, 1990ean. Brigadan hasi nintzen eta, deialdi baten ostean, elektrifikazio sailera pasatu nintzen. Tentu handiz lan egin behar da argindarrarekin. 2000. urtean heldu

nintzen Zumarragara eta hemen bizi naiz. Botatzen ez bagaituzte, jubilatuko bitartean hemen lan egingo dut.

Zer moduzko giroa bizi da Zumarragako geltokian?

Ona. Pozik nago. Izan ere, geltoki garrantzitsua da, ez gaude lan faltan eta ez gara aspertzen. Trenbidea berritzen ari gara eta gauzez lan egiten dugu: piezak eta kableak aldatzen.

Trenbideak etorkizun oparoa duela uste al duzu?

Abiadura handiko trenak errepidean eragin txikia izango duela entzun dut. Bidaiarientzako soilik bada, ez nau harritzen. Suitzan, Alemanian... trenak kamioiak eramaten dituzte. Kamioilariak ere trennean joaten dira eta geltokira fresko-fresko heldzen dira. Trennean 1.200 kilometro egiten dituzte eta, ondoren, kamioian 300 bat.

Europako beste herrialde batzuetan zuen garraiobidea gehiago bultzatzen dela uste duzu, beraz.

Pentsatzeko beste era bat dute eta diru gehiago ematen diote. Espainian, azken 20 urteotan asko hobetu den arren, trenbidea atzeratua dago. Bestalde, trenbide asko itxi dira. Garai batean, beste toki batzuetan ez bezala, ez zen ezer egin garraio hau indartzeko.

Beste herrialdeetako errealitatea gertutik ezagutzen al duzu?

Frantzia bakarrik izan naiz, baina aldizkari asko irakurtzen dut. Beste

toki batzuetan, trenaren hurrengo autoa bezain preziatua da. Alemania, Austria eta Suitza ezagutu nahi nituzke. Herrialde haietan sekulako indarra du.

Jendeak garraiobide hau behar bezainbeste preziatzen duela uste al duzu?

Erabiltzen dutenak oso gustura daude. Izan ere, badakite puntual heldzen dela. Arazoren bat gerta daiteke, baina hori garraiobide guztiakin gertatzen da.

Azaldu al dezakezu zergatik den trenbidea hain garrantzitsua zuretzat?

Deigarria iruditzen zait. Gipuzkoan trenbidearen lagunen elkartea dago eta kidea naiz, noski. Adin guztietako bazkideak ditu eta asteazkeneko elkartzen gara Donostian. Gaiarekin zerikusia duen oroz mintzatzen gara.

Gainera, miniaturazko trenen bilduma eta maketa bikainak dituzu Zumarragako geltokian.

40 lokomotora eta 400 bagoi ditut. Maketak 100 metro trenbide baino gehiago du, bi solairutan. Behekoak trenak gordetzeko eta maniobratzeko balio du eta goikoak zirkulaziorako. Lan eta diru asko kostatzen ari zait.

Ba al da bereziki atsegin duzun trenik?

Merkantzia trenak, batez ere. Dena den, Talgoa, espresak... ere baditut. Azkenaldian, modelo asko egiten dituzte eta ildo bat jarraitu behar da: ez dago guztiak erosterik. Scalextric-aren modukoa da, baina trenekin.

Txaro Uharte: "29 urte daramatzat astelehenetik ostiralera, egunero, trenean Donostiara joaten"



Herrian RENFEko aldiriko zerbitzua ezagutzen duen norbait bada, hori Txaro Uharte da. Donostiarra jaiotzez, Urretxura ezkondu zen. Hiriburuan lan egiten zuen eta jarraitzea erabaki zuen. 29 urte daramatza astelehenetik ostiralera, egunero, trenean Donostiara joaten. Primeran ezagutzen ditu trenak izandako aldaketak.

Abentura handia zen, orduan, Donostiara joatea.

Tren gehienak geltoki guztietan gelditzen zaizkit. Gainera, oso urte txarrak tokatu zaizkit: atentatuak, barrikadak, bonba-mehatxuak... Bestalde, euria egiten zuenean luiziak izaten ziren, katenaria sarritan erortzen zen... Askotan eta askotan, hiru ordu behar ziren bidaia egiteko.

Bi seme-alaba hezi dituzu. Ez duzu meritu makala...

Lanorduen murrizketa eskatu nuen eta iaz arte, egunean sei ordu lan egin dut. Amatasunagatik nuen eskubidearen epea pasatu zenean, enpresari sei orduko lanegunarekin jarraitzea proposatu nion eta onartu egin zuen.

Nolakoak ziren garai bateko trenak?

Atea nahi zenean irekitzea zegoen. Traste zaharrak ziren eta askotan gelditzen ziren ez aurrera ez atzera, kea zeruela. Bestalde, egun, aldiriko tren guztiek Brinkola-Irun bidea egiten dute; baina, lehen, asko, Mirandatik etortzen ziren. Hala, atzerapena askoz ere handiagoa zen.

Gauzak hala, egungo aldiriko zerbitzua zoragarria irudituko zaizu.

Noizean behin arazoren bat izaten da, baina, normalean, oso puntualak dira. Bestalde, txartel-zulatazailak lehen baino askoz ere atseginagoak dira eta, arazoren bat badago, horren berri ematen dute.

Zer hobetuko zenuke?

Zuzeneko gehiago jarriko nitzuke. Bestalde, udan ordutegia aldatu egiten dute eta zuzenekoak kentzen dituzte. Ikasleek oporrak dituztelako kentzen dituztela suposatzen dut, baina jende asko hondartzara joaten dela kontuan izan behar da. Eguraldi

ona egiten duenetan, artaldea dirudigu: amak hurrekin eta karrotxoekin, gazteak surf taulekin... batzuek besteen gainean. Bestalde, aire egokitua hotz jartzen dute eta Zumarragako geltokiko pasabidea urez betetzen da euria egiten duen bakoitzean.

Bestelakoan, trena garraibide ona dela uste al duzu?

Bai: eroso eta merkea da. Asteburuetan garestia omen da, baina hileko bonoak 60 euro besterik ez du balio. Pertsona urduria naiz eta trenean ematen ditudan bi orduak eguneko lasaienak dira niretzat. Urte hauetan guztietan denetik egin dut: asko irakurri dut, gurutzegramak egin ditut, gakorratza egiten ikasi nuen...

Lagunak ere egingo zenituen.

Azkenaldian bakarrik nabil, baina taldetxo asko izan ditut. Zumarragako ospitalea egin aurretik, esaterako, erizainekin joaten nintzen. Egun Donostian bizi den Mantecon itsuarekin makina bat aldiz etorri naiz Donostiatik. 89 urteko Ordiziako emakume batek ostegunero trena hartzen du semea ikustera joateko eta, dagoeneko, lagun minak gara. 15 urte daramatza ostegunero trena hartzen.

Asko aldatu al da trena erabiltzen duen jende mota eta kopurua?

Ez. Goizean, trena ikaslez eta langilez gainezka joaten da. Nik langileekin egin dut harremana batez ere, noski.

Trena autoa baino gustukoago duzu?

Gidatzeko baimena dut, baina oso gutxitan gidatu dut autoa. Geroz eta beldur handiagoa ematen dit. N1 errepidea, gainera, beldurgarria da. Autoan bidaiatuz denbora irabaziko nuke, baina lasaitasuna eta dirua galdu.

Nolatan hasi zinen trena erabiltzen?

Ezkondu eta Urretxura etorri nintzen bizitzera, baina Savin enpresako lana ez uztea erabaki nuen. Arratsaldean lan egitea eskatu nuen: 14.00etatik 22.00ak aldera. Hala, etxera izugarri berandu heltzen nintzen. 14.00etan lanera heltzeko, 12.05eko trena hartu beharra nuen. Orain, berriz, 12.47etako trena hartuta, 13.50ean Donostian naiz. Lehen baino askoz ere tren gehiago daude.



Ibon Garmendia

Udazken koloretan

Aspaldian udazkenean zita berezi bat izaten dut aldizkari honekin eta aurten ere hala eskatuta hemen nator-kizue bururatu zaizkidan kontu batzuk kontatzera. Kontu nahasiak eta nahastuak botako ditut, egoera halakoa daukagu eta.

Urtero sasoi berean idazteko aukera izaten dut, udazkenean alegia. Urtaro honek soineko zaharrak eranzen hasteko garaia dela gogorazten dit, baita hurrengo urtera begira hobetzeko gogoetarako garai aproposa dela ere bai. Era guztietako koloreak azaltzen dira mendietan (gure inguruan ez nahi beste), tenperatura ederra izaten da kalean eta kurtso hasierako ilusioak amets egitera gonbidatzen gaitu.

Aspaldian gure herriko kaleetan zehar gehiago ibiltzeko parada izan dut etxean ditugun bi sorgin txikien erruz. Batera eta bestera pixkatean ibili naiz eta gauza batzuk ikusi eta bizi izan ahal ditut. Onddo eta perretxikuak direla, usoak direla, garagardo festa dela, zine sozialaren zikloa dela, Behobiarako prestatzen ari diren korrikalariak direla, Errealaren denboraldi hasiera traketsa dela, okupazioa dela... mugimendua badugu nonahi! Ez al da saltsa garai ederra izaten? Ez al da herrian giroa berpizten?

Beti iruditu izan zait Gipuzkoan ahaztuta gauden eta "prestigio" txikiko herri eta bailara batean bizi garela, hainbat kontu aterako ditut plazara eta norberak pentsa dezala ados ote dagoen edo ez.

Euskararen erabilera gora egiten ari da mendeetan atzera besterik egin ez duen ingurune honetan. Berreskurapen lanaren perlak izan daitezke kantu afaria, Otamotz, Hitzza, Martxoan-Bertsoa edota bertso eskolaren loraldia. Euskararen egoera beltza prentsa-aren kontsumoan, lan munduan edota telebista kontsumoan ikusten dut. Azken aipamenaren adibide txiki bat botako dizuet, esaidazue zenbat tabernatan erosten den Realaren partida euskarazko esatariarekin. Txikikeriak izango dira baina...

Beste kontu bat. Herrian azken 2 hamarkadetan biztanleria galtzen ibili ondoren XXI. mendean biztanle-

ria mantentzen hasi garela irakurri berri dut. Berri ona da bai eta itxaropenaren kandela piztu dut. Susmoa daukat ekonomiak txarrera egindakoan egur handia jasoko ez ote dugun eta lehen aipatu datu horrek behe-rantz egingo ez ote duen.

Biztanleria mantentzearen arrazoietako bat etorkinen olatu berria izan da. Etorrera hori egoera ekonomikoak ekarri du eta ez gure paisaia erakargarriek. Badirudi integratzen hasiak direla eta badaude euskaraz hitz egiten duten poloniar edota marokoar jatorriko umeak. Horrelakoak ikustea eta entzutea oso pozgarria da, baina ez al daude gure bizimodutik oso urruti? 60. hamarkadan jaso genuen jende uholdea eta oraingo uholderako denok prest egon beharko dugu gizartean hausturarik egoterik nahi ez badugu. Gai honek eman-go du aurrerantzean zeresana, bai, eta komunitateak gerturatzen izango dugu galtza bete lan.

Aipatu ditudan gaiak gure gizartearen lorpen eta arazoak dira. Bi herritan banaturik gaude, bi nortasuneko errealitatea osatzen dugu baina erdiguneko beharrak berak dira. Ikaragarria iruditzen zait galtzen ari garen baliabide eta sinergien galera. Zer esan nahi dudana? Salvuespen batzuk izan ezik herrigintzan denok batera gabiltzala baina hirigintzan, ordea, bakoitza berearekin dabilela (gogoratu errotonda, Areizaga-Kalebarren plaza, azpiegituren bikoizketa, trafiko edota kotxe ilaren arazoa, Irimo lantegian egin nahi den merkatal zentrua, azken finean... arau subsidiarioak)

Herrigintzatik hirigintzara salto egin dut eta hurrengo saltoan zer tokatzen da? naziogintza? Aurten tiro hotsak gutxiago entzuten ditut martxoaz geroztik baina pilota jokuan trebeak direnak atzera eta atzera ari dira aukaria noiz nekatuko. Zein teilatutan dago orain pilota? Pilota erresistentzia eta pazientziazko kiro-la da eta bakegintza ere halakoa dela esan daiteke, "oso erresistentea". Begiak itxi eta lagun eta egoera ugari datozkit burura eta zorabiatzen hasi naiz, enfin...

Urtebete barru lerro hauek iraungita edo kadukatuta ikustea nahiko nuke eta neure buruari barre egin zein lelokeria idazten nituen ikusita. Ea hala den.

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Garraio publikoa erabiltzeko ohitura al duzu? Eskaintza egokia dagoela uste al duzu?



Antonio Clavo

Autoa bakarrik erabiltzen dut, herriko garraio publikoa eskasa baita. Autobus geltokiak herriaren erdian bakarrik jartzen dituzte. Ez dira, adibidez, auzoetara igotzen. Hala, zaila da auzoetako jendeak erabiltzea.

Bestalde, bi haur ditut eta askoz erosoagoa da autoan joatea. Herrirako urbano bat jarri beharko litzateke, baina nork ordainduko luke?



Maria Jesus Agirrebengoa

Ez dut garraio publikoa erabiltzen, baina ahizpak bai. Atzeratua da, Legazpin lan egiten du eta autobusak bere lantokitik urrun uzten du. Urteak daramatzagu hori konpontzeko eskatzen. Garraio publikoa erabili nahi dugu, baina geroz eta zailago jartzen dute. Donostia aldera, ordea, trenean joaten gara.



Maria Luisa Alvarez

Ez dut garraio publikoa erabiltzeko ohiturarik, ospitalera igotzeko soilik.

Autoa ere gutxi erabiltzen dut: herriaren erdian bizi naiz eta oportetara joateko bakarrik hartzen dut. Garraio publikoa gehiago eta autoa gutxiago erabili beharko litzatekeela uste dut.



Domitila Velber

Legazpira sarritan joaten naiz, anaia bertan bizi baita, eta urbanoak ematen duen zerbitzua ezin okerragoa da.

Bestalde, Mugitegin lan egiten dut, lekutan. Lankideak autoan joaten dira, ez baitute mikrobusa jarri nahi.

Garraio publikoaren egoera tamalgarria da, hori da autoa erabiltzearen arrazoia.

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

Alejandro Egea: Txirrindularien gidaria

Alejandro Egea Urretxun eta Zumarragan, txirrindularitzaren alde, pedalei inork baino gehiago eragin dien gizonetako bat da. Egeak entrenatzaile, masajista, zuzendari eta antolatzaile lanak egin ditu urte askotan. Osasun arazoak medio, duela urte batzuk utzi zion lanari, baina bere kirolik kuttunena oso gertutik jarraitzen du oraindik.

Urretxuar petoa zaren arren, ez zinen bertan jaio.

Ez, Zaragozan baizik. Aita hangoa nuen eta ama bertara ezkondu zen, baina, bi hilabete nituela, 1925ean, hil egin zen. Orduan, ama hona itzuli zen. 13 hilabete egin zituen ezkondu eta 23 urte zituen. 15 urte nituenean ezkondu zen berriro.

Gogorra izango zen aitarik gabe haztea.

Beno... osaba-izebak gazteak eta ezkongabeak ziren oraindik eta "mimoak" ez zitzaizkidan falta.


Non bizi zineten?

Osaba-izebak baserrian ezkondu-ta nituen eta, amak lan egiten zuenez, beraiekin bizi ginen Ertsolegin. 16 urterekin, Rodriguezen hasi nintzen lanean. 37 urte eman nituen bertan eta, gero, beste 13 Matia Fundazioan. Bertan,

masajista lana egin nuen. Aspalditik nenbilen lan horretan, hasieran etxean bakarrik.

Nolatan hasi zinen masajeak ematen?

Txirrindulariekin hasi nintzenez, batera eta bestera joaten ginen eta besteen txirrindulariei masajeak ematen zizkietela eta nireei inork ez zizkiela ematen ikusi nuen. Etxebarenekin (Realeko medikua izan zenarekin) banuen harremana eta irakasteko eskatu nion. Baietz esan zidan eta Donostiako San Antonio klinikara joaten hasi nintzen. Lanetik irten, trena hartu eta Donostiara. Etxebarenek esku ona nuela eta jarraitzeko esan zidan. Hori dela eta, liburu batzuk erosi eta gehiago ikasi nuen.



ZUEK BAI JAKIN!

Jende asko pasako zen zure eskuetatik...

Bakoitzak milioi bat eman izan balit, asko izango nituen! Tartean, kirolari asko izan ziren: aizkolariak, harrijasotzaileak, korrikalariak... Diego Garcia zena ere, adibidez, hona etortzen zen.

Gainera, garai batean masajista gutxi izango zineten.

1962an hasi nintzen eta inguru honetan, besterik ez zegoen. Hona, Legazpikoak, Beasaingoak, Zegamakoak... etortzen ziren. Bronkio arazoekin hasi nintzenean utzi nuen, duela bi urte. Izan ere, masajeak ematea gogorra da, esfortzu handia egin behar da eta besoetan indarra behar da. Bestalde, masajista batek esku onak behar ditu. Gaixoak mina non sentitzen duen esaten du, baina mina nondik datorren aurkitu behar da. Errazena txirrindularien eta korrikalarien hankak lantzea zen, bizkarrean lan egitea gehiago kostatzen da. Txirrindulariekin hasi nintzen eta beraiei masaje ematea oso gustuko nuen.

Nolatan halako txirrinduzaleatasuna?

Mutikotan hasi nintzen ibiltzen. Osabarena zen bizikleta. Behin, erori egin nintzen, jipoia eman zidan eta bizikleta gehiago ez hartzeko esan zidan. Nik, ezkondu eta lehenengo gauza txirrindua erostea izango zela esan nion. Halaxe erosi nuen. Egun zikloturistek egiten dituzten martxak, nik, bakarrik egiten nituen: jaietan kostalderko itzulia egiten nuen, beste batean Urkiolatik Gasteiza joan nintzen eta Altsasutik itzuli... Emazteak nahiago zuen ni bizikletan ibiltzea txikiteoan baino. Garai hartan ez zegoen zikloturistarik, baina txirrindulariak bai: Txokolatero, Askasibar zaharra, Eguzkitza, Florentino Alberdi...

Inguruko errepide guztiak ezagunak izango dituzu...

Nire gogorrera Eitzako aldapa zen. Sordorenera nekatuta heltzen nintzen, arnasik gabe... Askok kostatzen zitzaidan igotzea. Urkiola, Deskarga... ondo igotzen nituen, baina Eitza...

Orduan egun baino seguruagoa izango zen errepidean bizikletan ibiltzea...

Askotan gogoratzen naiz hemen-dik Zumaiara bi autok soilik aurreratzen zidatela. Errepidean ibiltzen ziren txirrindu-

lariak ere askoz ere gutxiago ziren. Bizikleta asko zeuden, baina jendeak lanera joateko erabiltzen zituen. Gutxi ikusten ziren ni ibiltzen ziren tokietan.

Frantzian askoz ere zaletasun handiagoa zegoen.

Mujikari omenaldia egin genionean Frantziatik hona bizikletan etorri ziren asko, baita emakumeak ere. Ez horren urrun jendea nola ibiltzen zen ikusteak, inbidia eman zidan. Orain, emakume gehiago ikusten da bizikletan.

Noiz hasi zinen lehiaketa munduan?

Ezkonduta nengoen dagoeneko txirrindularitzan murgildu nintzen. 1960an Goierriko Itzulia antolatzen hasi ziren eta hiru urte jarraian eman genituen antolaketan. Bestalde, bizikleta alokairu denda zuen Odriozolak jubencil mailako taldea ateratzea proposatu zidan eta horretan


“Etxebarrenek,
Realeko medikua
izan zenak, esku ona
nuela eta jarraitzeko
esan zidan”

ere murgildu nintzen. Txirrindulariekin joaten nintzen entrenatzera eta moldatzen nintzen, ez nintzen atzean gelditzen.

Makina bat txirrindulari pasako ziren zure eskutik...

Odriozolaren taldean bizpahiru urte eman nituen, Urmenetarekin hiruzpalau eta "Sociedad Ciclista Beasaindarra"-n ere aritu nintzen. Gero, Amelio Mendijurrekin hasi nintzen. Motza eta potoloa zen eta denboraldi batetik bestera asko gizontzen zen. Behin, horrela ezin genuela jarraitu esan nion eta, txirrindularitza gustuko bazuen, ziklo-krosa egitea komeni zitzaiola. Halaxe, Zaragozara eramane nuen. Hamabost egun eman genituen bertan entrenatzen. Handik, hobetuta etorri zen. Hemen, Santa Barbara genuen entrenatzeko tokia. Eguraldi txarra egiten bazuen, Irigoneko txabolan aritzen

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea
sartu nahi baduzu, deitu
943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

 Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13


ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


SUTAN
Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ZUEK BAI JAKIN!

Jesus Loroño handiarekin, Espainiako Itzulia irabazi eta gero Urretxun egin zitzaion omenaldian.



1963-64 denboraldia: Basualdo, Irastorza, Alejandro Egea, Agustin bere semea, Urmeneta eta Mendijur.



ginen. Goizeko seietan gimnasia egiten genuen eta, gero, errepidean aritzen zen.

Gorputz heziketan ere aditua zara.

Mariano Galarza txatarreroa zen lanbidez, baina txirrindularitzan oso sartua zegoen. Bi liburu bikain eman zizkidan eta haietan azaltzen zena ikasi nuen.

Negozio kaxkarra egingo zenuen zuk txirrindularitzan...

Afizio hutsez lan egin dut. Nire poza, txirrindulariak ondo zebiltzala ikustea zen: Mendijur, Penagarikano, Ezkioko Osinalde...

Nolakoa zen egun bateko prestaketa, egungoaren aldean?

Antzekoa, baina oraingoa baino garbiagoa. Orduan ez zen gauza arrarorik hartzen eta jendea ibili behar zelako ibiltzen zen. Lehen ere zer edo zer izango zen, baina ez orain bezain lotsagabe. Pertsona batek laguntza behar du hiru asteko lasterketa egiteko. Kontua, laguntza hori garbia edo zikina izan da. Bestalde, lehen, orain baino askoz ere diru gutxiago zegoen: txirrindulariak furgoneta batean joaten ziren lasterketetara eta ni motorrean. Kirolariek

kamiseta bat eta bizpahiru tubular besterik ez zituzten.

Etxetik kanpo denboraldi luzeak eman-go zenituen.

Munduko hamahiru ziklo-kros txapelketetan izan naiz, masajista, Espainiako selekzioarekin. Lehenago, 1969an edo, herriko lagunekin Bruselara joan nintzen munduko txapelketa ikustera. Oso zaleak ginen. Janaria hemen hartu eta lau eguneko bidaia egin genuen: bat han

“Afizio hutsez lan egin dut. Nire poza, txirrindulariak ondo zebiltzala ikustea zen”

eta beste hirurak autoan. Parisen gelditu ginen gaua pasatzera. Moulin Rouge-eta ikusi genituen. Frantziako Tourra ikustera ere joaten nintzen. Ezagutu dudan txirrin-

dularirik onena Merckx izan da, bere jarraitzaile sutsua nintzen. Garai batean Loroño eta Bahamontesen artean borroka latza zegoen eta ni Loroñozalea nintzen. Hemengo zen eta...

Zure eskutatik pasa zirenen artean, nor azpimarratuko zenuke?

Onena, Mendijur. Aparteko indarra zuen. Pena gazte joan zela. Hala izan ez balitz, txirrindularitzatik biziko zen. Esprinean baldar samarra zen, baina, bestelakoan, ziklo-kroserako oso aproposa zen. Bere hirugarren edo laugarren lasterketan, Ormaiztegin, ondo eramaten bazuten oso ona izango zela entzun nien federaziokoei. Nik berari ez nion halakorik esan, gogor saiatu beharko zela baizik.

Zu ere gogor saiatuko zinen...

Garai hartan ez zegoen prestatzaile fisikorik. Masajistak egiten zuen dena: medikuarena, prestatzailearena... Babesleak heldu zirenean banandu ziren lan hauek guztiak.

Txirrindularitza jarraitzen al duzu?

Lehen autoa hartu eta lasterketak ikustera joaten nintzen, baina orain ez.

ZUEK BAI JAKINI!

Telebista eta egunkari bitartez jarraitzen ditut probak. Martin Perdiguero eta bere koadrila nituen gustuko, baina egun batetik bestera zikinduta azaldu dira... Non ibili naiz ni?, diot neure buruari.

Zer dela eta atsegin duzu horrenbeste txirrindularitza?

Kirol oso konpletoa da. Suabe-suabe eginez gero, ez du kalterik egiten.

Semeek ere kirol hau maitatzea lortu zenuen.

Bi semeak zikloturistak izan dira eta biloba errepideko lasterketetan aritu zen. Orain, berriz, triatloian dabil. Oso ondo ari da. Etxe gutxitan izango dira gurean bezainbeste bizikleta. Semeak hiru bat izango ditu eta nik erabiltzen nuena ere gordeta du.

Ezkondu zinenean erosi zenuen hura?

Harekin bakarrik ibili naiz! Peugeot markakoa da. 11 kilo pisatzen zituen, baina farola, tinbrea, parrila eta guardabarrosa zituen. Ibiltzeko, arina zen. Lanera bizikletan joaten nintzen egunero, Rodriguezerara. Beste egun batzuetan, Azkoitira, Santa Barbarara... joaten nintzen. Pasiatzeko espeziala zen! 30 bat urte izango dira ibiltzeari utzi niola, Donostian



Alejandro Egea, ezkerretik hirugarrena, Eliz-Alde futbol zelaian egin zitzaion omenaldian.

lanean hasi nintzanean. Handik itzultzean, etxean ere masajeak eman behar nituen...

Zaletasunik badagoela uste al duzu?

Bai... Gorka Ruiz de Gordoia ona datorrela dirudi, baina gero zer egingo duen... Bestalde, horrenbeste zikloturista ikusteak inbidi pixka bat ematen dit, baina

Aginatik-eta oinez datozenek ematen didate handiagoa. Izan ere, 1998an auto batek kolpea jo zidan eta ez dut horrenbeste ibiltzerik. Oso zalea nintzen. Istripua izan nuen egun hartan bertan, autoaren bila nindoan. Legazpitik Barrendiolara oinez joateko ohitura nuen. Lehen 70 kilotik gora ezin pasa eta, orain, 86tik ezin jaitsi...

www.megadenda.com

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Bergara, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan

2006ko urria

Elias Jauregi: "Urretxun abestea aspaldiko nahia nuen"

Igandean Udazkeneko 25. Musika Zikloari hasiera eman zitzaion. Lehen kontzertua Capilla Gregorianista Easok eman zuen. Tartean, urretxuar bat izan zen: Elias Jauregi. Elias

Gurutz Jauregi zuzenbide irakaslearen anaia da. Patroi etxean jaio zen eta eliza inguru hartan eman zuen haurtzaroa. Igandean emozioz gainezka abestu zuen jaioterrian.



Noiz arte bizi izan zinen Urretxun?

Duela 25 urte erabaki genuen Donostiara bizitzera etortzea. Hona etorri aurretik, emaztea eta biok Urretxuko Ikastolako irakasleak izan ginen eta, ondoren, nire ama zaintzen eman genituen urte batzuk. Gero Donostiara etortzea erabaki genuen, nire anaia ere hemen bizi baita aspalditik.

Zer egiten duzue Donostian?

Hona etorri ginenetik, emaztea Santo Tomas Lizeoa ikastolako irakaslea izan da eta ni, berriz, Ibai ikastolakoa. Duela gutxi jubilatuta gara biok. Dena den, ikastola munduarekin harremana dugu oraindik. Izan ere, Easo abesbatzako presidentea urte askotan Santo Tomas Lizeokoa ere izan da.

Urretxurekin harremana al duzu?

Urtean behin, Santa Anastasia jaietan, joatea gustatzen zait. Urte batzuetan karroza desfileko epaimahaikide izan naiz. Txirimiri elkarteko lagunekin harreman handia dut oraindik. Aurten igandean eta astelehenean izan naiz: koadrilen egunean Txirimirikoekin bazkaldu nuen. Bestalde, mezatarra joatea ere asko gustatzen zait. Abesbatza entzuteak sekulako oroitzapenak ekartzen dizkit, Urretxun, Don Santiagorekin, hasi bainintzen kantuan. Aurten Parisera egin zuten bidaiaren 50. urteurrena ospatu dute eta nire anaia ere joan zela esan beharra dut.

Nolatan abesten duzu Gregorianoa?

12 urterekin Lazkaoko seminariara joan nintzen eta orduan hasi nintzen.

Duela 12 urte Easo abesbatzan Gregoriano taldea sortu genuen. Taldean Gipuzkoa osoko kideak gaude eta astero Lazkaora joaten gara entseatzera. Izan ere, zuzendaria beneditarra da.

Nolatan abestu duzue Urretxun?

Dagoeneko ia Euskal Herriko herri guztietan abestu dugu. Hori dela eta, pena handia ematen zidan Urretxun abestu ez izanak. Aspaldian nenbilen horren atzetik eta azkenean lortu dut.

Urte askoren ondoren, Urretxuko parrokiako korura itzuli zara. Zer sentitu duzu?

Txikitan bizi izandako gauzak oroitzapenean gelditzen dira, betirako. Oso gustura abestu dut.

Francisco Nuñez: “Lehen taldea Gipuzkoan erreferentea izatea nahi dugu”



Urola Kirol Elkarteko futbol sailak presidente berria du uztaila gerostik. Francisco Nuñezek, Kako jokalaria ohi handiaren anaiak, bi urterako hartu du kargua. Bere garaian futboleko eta eskubaloian jokatu zuen eta azken sail honetako zuzendaritza batzordeko kidea izan zen. Dena den, futbola beste kontu bat dela dio.

Zer esperientzia duzu kirol munduan?

Urolan bi denboraldi eman nituen: bata infantil mailan eta bestea jubenetan. Gero eskubaloian hasi nintzen eta sail horretako zuzendaritza batzordeko kidea ere izan nintzen. Badakit, gutxi gorabehera, zertan ari naizen; baina futbol saila oso handia da. Eskubaloikoa familia baten modukoa da: hemen ditugun jokalarien herena ditu.

Nolatan heldu zara presidente kargura?

Kirola beti izan dut gustuko eta bere alde lan egiten saiatu naiz, baina, semea izan genuenean, utzi egin behar izan nuen. Orain mutikoa Urolan jokatzen hasi da. Apur bat nahi gabe, beste apur bat bultzatu nautelako eta beste apur bat gehiago atsegin dudalako... presidente karguan nago. Gurasooi bilera batera deitu ziguten eta klubaren ardura hartzea eskaini ziguten. Ez genuen irtenbiderik, aurreko zuzendaritzakoek uzteko asmoa baitzuten. Zortzi guraso azaldu ginen bilera hartara eta sei gelditu egin gara. Nire asmoa talderen bat entrenatzea zen, baina...

Zenbat lagun zabiltzate taldean lanean?

Benetan garrantzitsuak lehendik zeudenak dira, guk utzitakoan jarraitu egingo baitute: tabernaz eta zozketez arduratzen direnak, delegatuak... Gu, federazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen gara batez ere. Gutzira, 16 bat lagun gaude.

Gogotsu hasiko zineten...

Kirol zuzendaria da taldeko pertsonarik

IZERDI PATSETAN



Francisco Nuñez, Argixaon.

garrantzitsuena. Iaztik abian den futbol eta hezkuntza plangintza erakutsi digu. Gure asmoa, jokalaria hasieratik hezitzea da: guztiek jokatzeko, oinarria hartzea, mailaz igoko diren heinean oinarria aberastea eta lehen taldera heltzen direnerako futboleko jokatzeko jakitea. Bestalde, lehen taldearen aurtengo helburua mailari eustea da. Lehen taldeak lehiatzea du helburu eta gainontzekoak hezkuntza proiektuaren parte dira.

Orain arte ondo lan egin al da?

Bai, baina ez du nahi bezain emaitza onik eman. Gora eta behera dabilen taldea lortu da. Lehen taldea Gipuzkoan erreferentea izatea nahi dugu: Beasain eta Tolosaren parekoa. Urola Preferenteko talde indartsuetako bat izan behar da, aldizka Hirugarren Mailara igotzeko aukera izango duena. Hori lortzea bospasei urte kostako zaigula uste dugu.

Oinarria harrobia da, beraz.

Lehen lehiatzeko lan egiten zen.

“Lehen taldeak lehiatzea du helburu eta besteak hezkuntza proiektuaren parte dira”

Talde bakoitzen hamaika jokalariekin lan egiten zen. Maila guztietan primeran lehiatzen ziren, baina, bata ikastera kanpora joaten zela eta, bestea, aspertzen zela, bost soilik heltzen ziren lehen taldera. Taldeko 18 gazte lanean jartzea lortzen badugu, denek jokatzeko eta ikastea, gehiago izango dira lehen taldera helduko direnak. Urolari gertatu zaiona Espainiako selekzioari gertatu zaion antzekoa da: beheko mailetan tituluak lortzen dituzte, baina talde nagusiarekin ez. Zergatik? Jubeniletan txapeldunak izan zirenek ez

dutelako euren taldeetan jokatzeko. Saskibaloian, ordea, urrezko junior guztiek minutuak izan dituzte ACB ligan.

Urretxu-Zumarragako harrobiarekin Hirugarren Mailara heltzeko aukera dagoela uste duzula esan duzu.

Gazte-gaztetik ondo lan eginez gero, belaunaldi onak suertatuko dira. Urolak ia 300 jokalaria eta 10 talde dituela kontuan izan behar da. Preferenteko goialdea da gure tokia, ez dugu zertan azken urteotan pasa ditugun beldurrak pasa beharrik. Denboraldia ondo hasi dugu, baina ez gara fido. Aurten 18 talde besterik ez gaude eta aurreko denboraldietan baino talde bat gehiago jaitsiko da. Duela bi urte, zortzigarren jardunaldian bigarrenak gindoazen eta, hala ere, jaitsi egin ginen.

10 talde dituzue.

Nesken bi talde ditugu: batean 17 jokalaria ditugu eta bestean 12. Bigarrenengo talde honetarako jokalaria behar ditugu,

IZERDI PATSETAN

bestela ezin baitira lehiatu. Mutilen artean, Futbol 8ko bi talde, kadete mailako bi, infantil mailako beste bi, jubenila eta lehen taldea ditugu.

Gaiaz aldatuz, zer moduz lehendakari-tzan eman dituzun lehen hilabete hauek?

Lan handia izan dugu. Orain arte, federazio kontuetan aritu gara, batez ere. Diru kontuak ondo eramán direla uste dugu eta orain arteko bidea jarraitzen saiatu behar dugu. Bidaien kontuarekin arazoa dugu, talde gehiago baititugu eta, gainera, prezioak igo baitira. Kosteak 12.000 euro igo da, baina estaliko dugula uste dugu. Babesleekin hitz egin dugu eta jendea laguntzeko prest dagoela dirudi.

Zein da Urolaren aurrekontua?

Denboraldi honetan 150.000 eurotik gorakoa izango da. Iaz, udalek 24.000 euro inguru eman zuten, baina aurten diru gehiago jartzea espero dugu. Gogotsu ikusten ditugu eta, gainera, gai berri bat aurrera ateratzea nahi dute: futbol eskola.

Zer esan dezakezu eskola horretaz?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Realaren ekimena da, azken honek gazte-oxoak futboleán lehenago hastea nahi zuela eta. Gipuzkoan 8-10 eskola egongo dira eta horietako bat guri eskaini digute. Udalek eskaintza onartzea nahi dute. Teorian, 2007 hasieran jarriko da abian eta 8 eta 11 urte bitarteko gaztetxoentzat izango da. Entrentzaileak tituludunak izango dira, Realak eta Aldundiak jarraipena egingo dute... Guk entrenatzaileak eta instalazioak besterik ez ditugu jarriko. Eskolari esker, gaztetxoak trebatuago helduko dira Urolara.

Beste berrikuntzarik ba al duzue?

Urretxu-Zumarragako ikastetxe guztiekin hitzarmena sinatu dugu. Formazioa bikoitza dela uste dugu: alde batetik futbola dago eta, bestetik, hezkuntza. Hori dela eta, hilean behin ikastetxeetako ordezkariekin bilduko gara eta gazteek gurean zer jarrera duten azalduko diegu. Bestalde, eskolan jarrera txarra duenak, ez du Urolan tokirik izango. Pertsonak hezitzea da gure lana, gutxi batzuk soilik bizi baitaitezke futbolarri esker.

Talde gehiago, futbol eskola... Argixaon

ba al dago horrenbestera tokirik?

Udalari anexoa konpontzeko eskatu diegu eta egingo duela esan digu. Lehengo moduan uztearekin, pozik gara: lurrezkoa, baina zulorik gabe.

Jokalariak, zuzendaritza, udalak... bazkideez hitz egitea falta zaigu.

Jokalari ohiei laguntza eskatu diegu. Izan ere, gezurra badirudi ere, lehen taldean jokatu duten herritarren %10 soilik da bazkide. Jokalarien gurasoak, berriz, karneta ateratzera behartzen ditugu. Beste toki batzuetan, seme-alaben azterketa medikoa eta fitxa ordaindu behar izaten dute eta garestiagoa da. Egun, 500 bazkide inguru

“Gipuzkoan zortzi edo hamar futbol eskola egongo dira eta horietako bat guri eskaini digute”

ditugu. Azken denboraldiotan, hortxe gabiltza. Kanpaina egitea pentsatu dugu, baina aurrerago izan beharko du. Izan ere, bi hilabete daramatzagu lanean eta egunero gaueko 9etan irteten gara Argixaotik.

Gurasoek zuen ahalegina estimatzen dutela uste al duzue?

Beraiekin bilera bat edo beste egin dugu. Seme-alaben eredia dira eta jokamolde egokia erakutsi behar dute. Arerioak eta epaileak errespetatu behar dituzte, seme-alabei puntualitatearen eta konpromisoaren garrantzia irakatsi behar diete... Euren laguntza behar dugula argi eduki behar dute. Horren barne, hemen lanean gaudenon lana errespetatzea sartzen da. Zer edo zer gaizki egiten dugula uste badute, Argixaon jakinarazi behar dute.

Bukatzeke, zer esan dizu zure anaiak?

Nire anaia hemen sartzea espero dut. Futbola izugarri atsegin du eta badaki berari zer eman dion. Hori dela eta, guk uzten dugunean, lekukoa hartuko duenetako bat izatea gustatuko litzaidake.

Muntiaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Jaurerri

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Denda alokatu edo
saltzen da Antzuolan
Martxan dagoen
argazkidenda-bitxitegia

943 78 70 66
635 757 271

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



Mikel Lizarralde

Lizarralde zumarragar peto-petoa da. Zelai-Ariztitik eta Institututik pasatu ondoren, Donostiara joan zen harreman publiko ikasketak egitera. "Oso lagun onak egin nituen eta oraindik harremana dugu" dio.

Lanari dagokionez, denetik egin du. "Lehen lana hondartzan egin nuen, Kaikuren promozio bat. Gero Urola kooperatiban, Udalarentzat eta itzultzaile lanean ere aritu naiz". Duela urte eta erdi, berriz, bere izena duen arropa denda ireki zuen. "Moda kontua beti gustuko izan dut eta, une hartan, herrian hutsunea zegoela eta tokitxoak egiterik nuela iruditu zitzaidan". Lizarralde baikorra da. "Merkataritzak ez du une oso ona bizi herrian.

Arropa kontuan bi joera daude: herrian erostea edo merkatal guneetara joatea. Zorionez, gizonezkoek behar dutenean erosten dute arropa eta ez dute kanpora joateko joerarik".

Mikel Lizarralde musikaria ere bada. Solfeoa, armonia, korala, pianoa eta klarinetea ikasi zituen. Duela 22 urtetik Zumarragako musika bandako eta parroikia-abesbatzako kidea da. "Ramon Esnaolak eskaini zidan bandan sartzea. Oso laguna dut". Goiargin beranduago hasi zen. "Inbidiaz ikusten nituen, baina ez nintzen beraiegana hurbiltzera ausartzen. Sevillako Expora joateko mutil ahotsak behar zituzten eta beraiekin joateko eskatu zidaten. Ordutik, abesbatzako kidea naiz".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Sukaldaria. Beti gustatu izan zait sukaldaritza, baina lehen gehiago aritzen nintzen. Dena den, elkartean noiz-zean behin zer edo zer egiten dut.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea, musika entzutea, zinemara joatea eta antzerkia ikustea. Mendia ere atsegin dut, baina lehen baino gutxiago ibiltzen naiz..

-Bizitzeko toki bat?

Zumarragan oso gustura nago. Hiri handiak egun batzuetarako ondo daude, baina ez nintzateke halako batean ohituko.

-Musikari bat?

Abesti zalea naiz, musikari zalea baino gehiago.

-Abesti bat?

'La vida es bella' pelikularen musika banda.

-Abesbatza bat?

Inguru honetan erreferentzia Orfeoia da, baina beste batzuek ere oso lan ona egiten dute eta ez dira horren eza-gunak. Hondore abesbatza, adibidez.

-Ondo janzten duen euskaldun bat?

Telebistan lanerako jantzita azaltzen dira. Politikariek, adibidez, oso irudi formala ematen dute; baina euren benetako ereduak beste bat da. Josu Jon Imaz bere irudiarekin bat dator, baina Joseba Egibar gazteagoa iruditu zitzaidan.

-Politikariek ari zarela, ondo janzten al dute?

Gure alkateek klasikoegi janzten dute, nire gusturako. Bestalde, Katalunia diseinu kontuan puntakoa da eta bertako politikariek nabari zaie.

-Urretxu-Zumarragan berezko estiloa al dugu?

Deportiboa nagusi da. Bergaran lan egin nuen eta emakumeak lanera ezkontza batera bezala joaten dira.

-Ilehorriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Lore sorta bat.

-Eta jasotakoa?

Liburu bat nire urtebetetze egunean.

-Data bat?

Santa Isabel eta Santa Lutzia egunak oso bereziak dira niretzat. Bata Errege eguna ere.

-Neska eta mutil izen bana?

Marta eta Iñigo.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Hitza eta DV. Eskura datozkidan gainontzeoak ere begiratzen ditut.

-Gustuko telebista saioa?

'Saber y ganar'.

-Bereziki gorroto duzuna?

Politikari buruzkoek sutan jartzen naute.

-Liburu bat?

Ildefonso Falconesen 'La catedral del mar'.

-Soinu bat?

Itsasoarena.

-Usain bat?

Intsentsuarena.

-Janari bat?

Patata tortila.

-Ura ala...

Ardo ona ere bai.

asirauto

Mugitegi industrialdea, URRETXU

Telf. eta fax: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79

Hilabete honetako aukera berezia:



BMW Serie1 118d
2005. urtekoa



Citroën C3 1.4 HDI
2002. urtekoa



Volkswagen Golf 130CV
2002. urtekoa



Aixam
Berria



Citroën Berlingo 1.9D
2003. urtekoa



Audi A4 Allroad 180CV
2002. urtekoa



Volkswagen Golf 1.6 16v
2001. urtekoa



Volkswagen Sharan 1.9TDI 110CV
1999. urtekoa



Volkswagen Passat 2.0TDI 140CV
2006. urtekoa



Audi A3 105CV
2005. urtekoa



SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE